

# berrobiberri'06

BERROBIKO URTEKARIA  
7. zenbakia 2006ko abuztua

## XXI. menderako eskola



Excavaciones **ORY** S.A. *Jesús Alegria*



Avda. Premin de Iruña, Nº 20 - 1º A - 31008 - PAMPLONA (Navarra)

Tfnos: 948.17.49.46 - Fax: 948.17.11.60

Moviles: 609.44.31.29 - 696.97.51.10



**Berrobiko Udala**  
Euskara eta Kulturarekin

**SORONEA**  
DENDA EKOLOGIKOA

- Haragiak
- Berdurak
- Frutak
- Zerealak
- Ogia
- Esnea
- Baserriko ollaskoa
- Hazi Biodinamikoak
- Baratzako botika naturalak
- Landareak

• 2 urte osasuna saltzen •  
Letxuga kalea, 8 • Tolosa • ☎ 943 016 868

**Maria Pilar Vega**  
**BOTIKA**

Jose M<sup>a</sup> Goikoetxea, 31 • Berrobi  
☎ 943 683 602

**Begi Gorri**  
**GAZTETXEA**



**Teileri**  
baserria

Lore eta barazki biologikoak  
☎ 943 683 427



**Munksjö**  
PAPER


Munksjö Paper, S.A.  
División Deter  
Eibar - 20492 Berioztégui, España  
Tel: +34 943 683 1112  
Fax: +34 943 683 358  
www.munksjo.com

Laminatu plastiko dekoratiboetarako paper basea  
Papel base para laminados plásticos decorativos

... oltre la carta  
... algo más que papel  
... more than just  
much als Papier

# 1974-75

## ikasturtea



- |                           |                          |                           |                         |
|---------------------------|--------------------------|---------------------------|-------------------------|
| 1 Juan Jesus Garaikoetxea | 18 XXX                   | 35 Maria Isabel Masa      | 52 Blanki Gomez         |
| 2 Juan Ignacio Zabala     | 19 Gonzalo Ibañez        | 36 Lete Ropero            | 53 Manuel Izagirre      |
| 3 Miguel Angel Paredes    | 20 Benito Alonso         | 37 Juan Francisco Paredes | 54 Eduardo Lopez        |
| 4 Juan Antonio Bergara    | 21 Aitor Ayerza          | 38 Iñigo Ayerza           | 55 Luis Jabier Erauskin |
| 5 Pedro José Manso        | 22 Iñaki Irisarri        | 39 Ixiar Ayerza           | 56 Juan Antonio Ropero  |
| 6 Juan Andres Agirretxe   | 23 Ramon Izagirre        | 40 Kontxi Belauntzaran    | 57 Guillermo Rodas      |
| 7 Mikel Bergara           | 24 Inmaculada Ayerza     | 41 Antonio Muñoa          | 58 XXX                  |
| 8 Bisi Manso              | 25 Idoia Ugartemendia    | 42 Maria Teresa Ayerza    | 59 Rosarito Ayerza      |
| 9 Inmaculada Masa         | 26 Mari Carmen Rodriguez | 43 Maribi Agirretxe       | 60 Marisol Alberdi      |
| 10 Begoña Masa            | 27 Maria Jesus Martinez  | 44 Ixiar Belauntzaran     | 61 Izazkun Uranga       |
| 11 Koro Agirretxe         | 28 Juana Mari Arocena    | 45 Feli Ayerza            | 62 Lurdes Ibañez        |
| 12 Margarita Zubeldia     | 29 Ina Uranga            | 46 Izazkun Zabala         | 63 Asun Agirretxe       |
| 13 Begoña Zubeldia        | 30 Esteban Zabala        | 47 Rosi Ibañez            | 64 XXX                  |
| 14 Jose Mari Paredes      | 31 Miren Odriozola       | 48 Isabel Irisarri        | 65 XXX                  |
| 15 Felix Lopez            | 32 Jasone Armendariz     | 49 Malu Agirretxe         | 66 Izazkun Muñoa        |
| 16 Jose Mari Izagirre     | 33 Lumi Gomez            | 50 Rosarito Garaikoetxea  |                         |
| 17 Miguel Angel Lopez     | 34 Maria Angeles Agudo   | 51 Begoña (andereñoa)     |                         |

## non zer : : : : :

- |                                       |                                 |
|---------------------------------------|---------------------------------|
| 4-5 Jaiotzak eta heriotzak            | 20-23 Eskola zaharretik berrira |
| 8-9 Inkesta: etxebizitza berriak      | 24-27 Argazki zaharrak          |
| 10-11 Liburutegia                     | 28-29 Estankoari agur           |
| 13 Gure Txokoa dantzalekua            | 30-31 Kirol txokoa              |
| 14-16 Udala Mintzo                    | 32-33 Ainara Ugartemendia       |
| 17-19 Elkarrizketa: Lontxo Dorronsoro | 35-38 Urtetik urterako berriak  |

**Lantaldea:** Niko Artola, Iñigo Aurkia, Rosa Aurkia, Agurtzane Belauntzaran, Elena Berakoetxea, Aloña Izagirre, Bittor Madina, Begoña Olamusu, Ramon Olasagasti.

**Kolaboratzaileak:** Argazkiak utzi dizkiguten guztiak, publizitatea jarri dutenak, Pausoka aldizkaria osatu duten ikasle eta irakasleak, Ainara Ugartemendia. Eskerrik asko guztioi!

**Lege gordailua:** SS-27 / 2000

**Berrobin, 2006. urteko abuztuan**

**berrobi**berri<sup>06</sup>



Hurrengo Berrobiberriri begira, eskertuko genuke aurten jaio diren zuen seme-alabak orriotan agertzea nahi duzuen gurasoek edota hilberriren bat izan duzuen familiariek argazkia eta datuak liburutegira emango bazenituzte, gu ibili beharrean eske.



**Maddi Iguaran Lazkano**

**2005/09/24**

Gurasoak: Elias Iguaran eta Goretta Lazkano



**Ander Gordillo Beltrán**

**2005/10/20**

Gurasoak: Juan Gordillo eta Sandra Beltrán



**Eñaut Echenagusia Ibáñez**

**2006/01/31**

Gurasoak: Juanra Echenagusia eta Amaia Ibáñez



**Galder Lekuona Sasieta**

**2006/04/24**


Gurasoak: Mikel Lekuona eta Nerea Sasieta



**Ander Murillo Garmendia**

**2006/07/24**

Gurasoak: Juan Carlos Murillo eta Arantxa Garmendia



**Leandro Rodríguez**

**Jaio: 1933/06/26 Hil: 2005/09/27**



**Maria Sanz Matilla**

**Jaio: 1923/04/09 Hil: 2006/01/31**



**Ignacio Odriozabala**

**Jaio: 1938/08/18 Hil: 2006/05/19**



**Juan Bautista Etxeberria Zipitria**

**Jaio: 1940/06/23 Hil: 2006/06/11**



**Antonio Ruiz Andrades**

**Jaio: 1945/07/24 Hil: 2006/06/01**

# Sarriópapel eta C

(Uranga faktoria)



ekoizten du



**Sarriópapel y Celulosa S.A.**  
**Uranga Fábrica**  
Ospela auzoa, 30 · 20493 Berrobi (Gipuzkoa)

# Celulosa S.A.



- **Autokopiatiborako oinarrizko papera (35-90 g/m<sup>2</sup> artean)**
- **Termikorako oinarrizko papera (40-50 g/m<sup>2</sup> artean)**
- **Estukadorako oinarrizko papera (60-90 g/m<sup>2</sup> artean)**
- **Brillo handiko estukadorako oinarrizko papera (50-80 g/m<sup>2</sup> artean)**

## Gaia: Etxebizitzak Berrobin

1. Etxebizitza gehiagoren beharrik ba al da Berrobin?
2. Zer motatako etxebizitzak eraikiko zenituzke?
3. Nolakoa beharko luke herriaren hazkuntza?



### Imanol Izagirre

#### “Berdeguneak mantentzea ere garrantzitsua da”

1. Herriko gazteak eta edadeko behartuak behar duten bitartean etxe gehiagoren beharra ikusten dut.
2. Prezio eskuragarriko etxeak egingo nituzke. Salmenta librea aterata ezkeren prezioak neurrigabeak izaten dira.
3. Herri izaera mantentzeko beharren arabera eraiki behar da. Garrantzitsua iruditzen zait era berean gaur egun herrian dauden berdeguneak al den neurrian mantentzea, dena ez baita eraikitzea. Gainera herria haztearekin zerbitzuak ere hobetu beharko lirateke, autobusaren zerbitzu zabalagoa adibidez.



### Candi Iturriza

#### “Behartu eta adinekoak kontutan hartu behar dira”

1. Etxebizitza gehiago behar dira gazteria ugaria da eta. Gainera herrian dauden behartu eta adinekoak kontutan eduki behar dira asko igogailurik gabeko etxeetan bizi dira eta. Azkena egindako etxeak oso ondo etorri dira.
2. Babes ofizialeko edo tasaziozko pisuak egingo nituzke. Banakako etxeak oso politak geratzen dira baina gaur egungo salneurrietan ez dira herritar gehienentzat eskuragarri.
3. Kanpotik jendea ekartzeko etxeak egitea ondo legoke baina herriko gazteak herrian geratzeko lehentasunarekin eraiki behar litzateke. Aukera hori eskeintzea beharrezkoa da.



### Jasone Armendariz

## “Pixkanaka eraikiko nuke Berrobiren izaera galdu ez dadin”

1. Etxebizitzaren beharra ikusten dut. Gazteak herrian geratzea beharrezkoa da.
2. Babes ofizialeko etxeak egingo nituzke.
3. Pixkanaka eraikiko nuke Berrobiren izaera galdu ez dadin.



### Ion Alberdi

## “Tasatuak egingo nituzke gazteen eskura egoteko”

1. Etxebizitzaren beharra badagoela iruditzen zait herriko gazteek kanpora alde egin beharra izan ez dezaten.
2. Etxe tasatuak egingo nituzke gazteen eskura egoteko.
3. Herriko jendearen beharren arabera eraiki behar da.



### Mertxe eta Maitere Belaunzaran

## “Gazteei begira merkeak eta herria dotoretuko duten etxeak, denetarik eraikiko genuke”

1. Etxebizitzaren beharra badagoela uste dugu, herrian gazteak badira eta.
2. Denetarik eraikiko genuke. Gazteei begira merkeak eta bestalde, herria dotoretuko duten etxeak ere bai.
3. Berrobiko biztanleen beharrak asetu eta honetaz gain herria pixkat haztea ere ez dugu gaizki ikusten.



# Liburutegiko berriak

**Urteroko hitzordua dugu aldizkari honetan liburutegiaren berri ematea. Urteak luzea edo motza eman dezake baina uste ala ez denborak berea uzten du eta hori biltzen saiatuko gara.**

Pasa den urteko urrian eman genion hasiera liburutegiko ikasturteari nolabait esanda, iaz bezala astearte eta ostegunetan egon gara denon zain. Negu hotz eta luze honetan denontzat aterpe, toki goxoa, eskolako lanak egiteko lekua, informazioa aurkitzeko aukera, gurasoek haurrekin egoteko gunea, ikastaroetan parte hartzeko eskaintza... hori eta gehiago izan da Berrobiko liburutegia.

Esan genezake denborarekin ohitura bihurtu dela liburutegira etortzea.

## Liburutegiko funtzionamendua

Aurrekoaren lekuko izan dira etorri diren 2282 erabiltzaileak, 395 mailegu (prestamo) egin dituzte. Iaz baino erabiltzaile eta mailegu gehiago. Apaletan, nahi duenarentzat, hor daude ia 2.000 liburu katalogatu eta beste hainbeste oraindik katalogatu gabe.

Bazkideek ere gora egin dute, eta 130 lagun izatera iritsi gara dagoeneko.

Aurten ere iazkoan bezalaxe eskatutako liburuak erosi ditugu, 40 bat liburu, behar zuenaren eskuetan ahalik eta azkarren jarri ditugu. Era honetan behar duenak ez du ez erosi ezta Tolosara edo Ibarra joan behar, herrian bertan du zerbitzu hori.

Hamabostean behin goizez eskolako haur talde bat irakaslearekin etorri da irakurtzera, maileguak egitera...

Eskolakoek badakite atea zabalik dituztela horrelako ekintza gehiago egiteko ere.

Esan beharrik ez dago herriko edozein taldek, jubilatuekin gogoratzen gara bereziki, nahi badu bisitaren bat edo... atea zabalduta daude guzti-guztientzat.

KZguneak ere hor darrai eta ze ona den ikustea ondo erabiliz gero oso tresna baliogarria dela.

## Automatizazioa

laz aurtengorako izango zela zorioneko automatizazioa esan genuen baina badakizue «jauregiko gauzak... poliki» eta hala izan da hemen ere.

Automatizazioa ezagutzeko aukerarik izan ez dugunez berriro ere ezaugarri nagusiak gogoratuko ditugu bi hitzetan. Proiektu honetan sartzen diren liburutegiak sarean egongo dira eta dakarrena hauxe da: katalogazio azkarra, Berrobiko liburutegiko karnetak sarean dauden liburutegietan balioko du, maileguak, erreserbak etxetik, Internet bidez egin daitezke...

Datorren ikasturteko kontua izango da hau dena. Lana ugari izango dugu baina horrek jendearentzat erosotasuna ekarriko duen esperantzarekin egingo dugu.

## Ekintzak

- Xake ikastaroa: otsailetik maiatzera asteartetan.
- Ipuin kontalaria: otsailak 17an Rai Bueno etorri zen liburutegira.
- Haur liburuaren eguna.
- Liburuaren eguna: mailegua indartzeko ekintza, 46 mailegu egin ziren egun horretan.

- IV.Literatur lehiaketa: 22 parte hartzaile.
- Pintura ikastaroa: maiatzean hasi eta uztailean bukatu. Festetarako egitarauaren marrazkiak egitea helburu.

## Berrikuntza

Berrikuntza txiki bat badugu: mailegua egiten denean ematen den txartela, non itzultzeko data jartzen duen, berria dugu. Felix Amianok egindako marrazkia-ekin, gure liburutegi-ko logoa eta aurpegia dela esango genuke. Amaitzeko, berriro ere errepikatuko dugu ateak denontzat zabalik daudela.

Aldaketak, aurten bai izango dira eta horiek denon onerako izango direlakoan gaude eta nola ez, azaldu eta ikusi.



# M A Y E N S A

## MANDRILAK ESPIRALEAN

☎ 943 683 051 / 943 683 231 · Faxa: 943 683 345

20493 Berrobi

mayensa@mayensa.com

[www.mayensa.com](http://www.mayensa.com)


**UNT XITEGIA**  
 Ozpel Auzoa, 28  
 20493 BERROBI  
 Tel.: 943 683186



**ERBAITA, S.A.T.**



**Eguneko menuak ·**  
**Menu bereziak ·**  
**Asteburuko menuak ·**  
**Karta ·**

☎ 943 683 078  
**Berrobi**

**Xanti harategia**  
**Xabier Errazkin**

Bertako okela eta artisau  
 eran egindako txerrikiak

Usategi Berri etxea · ☎ 943 683 311 · Berrobi



**SHANTI**      **KIROLAK**

Rondilla, 11 · ☎ 943 674 074 · Arostegieta, s/n · ☎ 943 676 093  
**Tolosa**



**Lesmes Belaunzaran**  
**TXERRI ABELTZANTZA**

Usarre baserria · ☎ 943 683 193 · Berrobi


**SEAT**


**KIA XO MOTOR**


*Berebilen salmenta  
 eta konponketa*

San Esteban auzoa, 6 · 20400 Tolosa  
 ☎ 943 654 875 / 943 650 162



**URTO**  
**GARRAIOAK**

Ibai-Ondo etxea, 3 / esk. · Berrobi · ☎ 649 813 665 / 619 405 260

# Gure Txokoa

## Inguruko historia txikia

**Denok ezagutzen dugu ingurua, Belauntzako lurretan dago, herritik Tolosara edo alderantziz ia egunero ibiltzen gara joan etorrian, ba... inguru horretan zeinek esan denboran zehar hainbeste gertaera ezagun ezberdin izan daitekeenik.**

Beotibar du izena inguru horrek, Beotibarko gudu famatua, hainbeste aldiz entzuna 1321ean hor nonbait izango zen, bertan, Gipuzkoako oinaztarrek nafarrak garaitu zituzten. Aurretik gipuzkoarrek hartutako Gorritiko gaztelua berreskuratu zuten nafarrek eta gipuzkoarrek zigortzeko asmotan nafarrak atzetik abiatu omen ziren, baina hara non Beotibarko arroan gipuzkoarrek nafarrei aurre egin eta bataila entzutetsu hori gertatu. Hara hemen aspaldiko gertaera.

Urte tarte handia igaro zen eta Beotibarko harrobia eta Beotibarko paper lantegia ere hor egon dira.

### **Eta orain dela 25 urte, 1981ean, Gure Txokoa zabaldu zuten**

Ingurukoek zer pentsatuko zuten Zaraguetako fabrika "diskoteka" edo dantzalekua jarri behar zutela entzun zuten. Lehen lanerako tokia orain festarako. Arraioa!. Auskalo zer pasa zen beraien buruetatik baina halaxe egin zen: Gure Txokoa.

Lehen urtetan hura beti bete-betea zegoen.

Hurbileko, eta ez hain hurbileko gazteek eta ez hain gazteek aitzaki bat izan edo bestea izan asteburu gehienetan harako erronomia egiten zuten.

Hainbat eta hainbat bikote sortu ziren lehen fabrika hotz eta orain bero hartzen zituen artean. Herri honetan adibide bat baino gehiago baditugu eta inguruetan ere ez gutxi.

Azpeititik, Errezildik, Pasaiatik, Hernanitik, Bergararik, Zumarragatik, Berastegitik, Goierri aldetik... neska eta mutil koadrilak etortzen ziren, Nafarroa aldetik ere izango ziren beste asmo batzuekin noski. Jendea erruz izaten zen astebururo.

Batzuek diotenez salto handia suposatu zuen ordura



arteko parranda eta ondorengo artean. Gure Txokoa ireki arte Maituna Tolosan eta inguruko festak izaten ziren horretarako lekuak, urrutirago ez bazen joaten behintzat, GureTxokoa zabalduz geroztik astebururo izaten zen non eta noekin dantzatu edo beste edozer... Inguruko asko etxerako bidean geratu ere bai...

Talde, kantari ugari pasa ziren han erdian zegoen oholztatik eta haiek bukatu ondoren disc-jokey-a izaten zen itxi arte.

Jende askok ditu garai hartako oroimenak: soldaduskan zeudela txartela erakutsi eta doan pasatzen uzten zietela, hango bultza beharra sartzerakoan, zenbaiten "aitzurak", "legatzak" edo nahi duzuen, ateratzerakoan apar-kalekutik zubi mehar hartatik ateratzeko bozinak eta presak, iskanbilak, asteburuetan zenbaitek pasatzen zuen beldurra etxera etortzean bideko trafikoa eta gidari astakirtenengatik, istripuak, bat baino gehiago ez atzera ez aurrera geratu eta kotxea utzi eta etxera oinez etorria zen, etxera joateko komeriak igandean azken tren hartu nahi eta Tolosara jeisteko... pertsona hala izango dira oroimenak.

Diskotekaren distribuzioa ere askok gogoan duten zerbait da: eskailera mehar haiek igotzeko, arropa uzteko tokia, barrura sartu ezker aldean barra luze-luzea, eskubira pista, "erreserbatuak" ilun xamar, beste barra bat, pista beste aldean esertzeko toki gehiago...

Puri-purian egon zen garaian edo beranduago joan zenak bere oroitzapenak izango ditu, onak edo txarrak, bakoitzak bereak... Paperek diotenez 1998an bukatu zuen bere ibilbidea.

Bide bazterreko harriek hitz egingo balute kontatuko lukete bai inguruko historia eta baita ere baten eta beste istoriotxoak.

**Urtero, Berrobiberrik tartetxoren bat eskaintzen dio Udalari bertako asmo, proiektu eta egindakoren berri laburduta ager ditzan. Udalaren gorabeherak azaltzea herriaren onerako delakoan gaude.**

# Gerorako oinarriak jartzen

Urte batek ematen du eginkizun batzuk burutzeko denbora. Udal Gobernu honek iaiztik hona burutu dituen lanak doazkizue hemen idatzita. (Orain hiru urte hauteskunde kanpainan pentsatutakoak).

## Egindako lanak


- Arau subsidiarioen behin betiko onarpena: Azken hiru urte hauetan, oinarritzko beharrezko lana izan da. Azkenean, onartuak izan dira arau subsidiario hauek. Kostata atera ditugu aurrera, eta gerorako lan eder eta askoren iturria izango dira. Berrobi herrirako txapel bikaina egin dugu onarpen honekin. Diputazioak aurten oneritzia eman behar dio Udalak onartutakoari.
- **Eskola berria:** Azkenean, herriak behar zuen eraikin galanta eta modernoa dugu herriko ume eta gazteen heziketarako. Haurtzaindegi, Haur eta Lehen Hezkuntza osatzeko ikaslekuak izango da. Irailarako inauguratuko da, ikasturte berria bere egunean hasteko. Herritar guztiek izango dugu aukera nolakoa den ondo ikusteko.
- **Aparkalekuak:** Eskola eta etxebizitza berrien inguruan egin dira.
- **Sendagile eta erizainaren zerbitzuak hobetu:** nola sendagilea hala erizaina bi aldiz etortzen dira orain asteen.
- Udal eta Herri-zerbitzuetarako autoaren erosketa.

## Burutu beharrekoak

Orain arte, egin diren lanak azaldu dizkizuegu. Legealdi hau bukatzeko urte bat besterik ez zaigu falta, baina baditugu esku artean hainbat lan hasi beharrekoak, eta, behar bada, legealdi hau amaitzerako burutuko ditugunak. Egindakoa hor izango dugu eta orain hasitakoa ez badugu

bukatzen prest izango gara aurrerantzean bukatzeko. Hauxek dira gertuen ditugun asmoak eta proiektuak:

- **Udaletxe aurreko plaza eraberritu:** Lehengo pelotalekuan plazaren aurreproiektua egin dago. Legealdi honetan hasiko gara udaletxe aurreko plaza hori eraberritzen, eta lan horiekin batera beharrezko den espaloia Maiensako zubiraino. Era berean, arau subsidiarioen arabera burutzen diren etxe edo eraikinak egin ahala luzatzen joango da zatika Ermitarainoko espaloia.
  - **Iriarte etxe aurreko gunea plaza bihurtu:** Erdigunea ederki agertuko zaigu plaza hau bukatzen denean. Udaletxe aurreko plazarekin lotuko da eta horrela bat egingo da. Azpian, lurpeko garajeak egingo dira herritarrentzat. Herriko jaiak oraintxe direnez, obra honen hasiera irailerako uztea erabaki du Gobernu Taldeak.
  - Agotzane eta Alontso azpian etxebizitzekin batera Elizgain eta Soroene bitarteko urbanizazioa ere egingo da.
  - **Eskola zaharrea etxeak:** Eskola zaharra botatzeko asmoa dugu. Bertan sei etxebizitzako blokea eraikiko da. Bloke edo etxebizitza horren azpian, berriz, Medikua eta Osasun Zentroa jarriko dira.
  - **Kale eta auzoetako etxebizitzaren seinalizazioa:** Ageriari ipiniko dira seinalizazioak. Aurten jartzea espero dugu.
  - **Erreka ondoko patxada eta aisialdi gunea:** Legealdi honetan burutuko dugu. Leku horretan, zuhaixkak, argia, mahaiak, aulkiak, parrilak edo erretegiak jarriko ditugu. Aisialdirako gunea zabala egin nahi da herritarrentzat.
- Ahalegin guztiak jarriz eta borondate onez, aurrera jarraitzeko asmoa dugu. Herriaren onerako bada, nahikoa da guretzat.



## Hiri antolaketako arauen berrikuspena

Hona laburturik, non zer-nolako etxebizitzak eraikitzeko aukera izango den Berrobin, AA.SS.k onartuak izatean.

### 1. Muntegi aldea

- 24 etxebizitza blokean, salmenta librekoak.
- 12 etxebizitza blokean, babes ofizialekoak.

### 2. Alontso - Agotzanea

- 16 bifamiliar prezio adostuan.
- 1 unifamiliarra salmenta librekoa.

### 3. Sorondo aldea

- 10 bifamiliar, salmenta librekoak.
- 9 etxebizitza blokean, salmenta librekoak.
- 12 etxebizitza blokean, prezio adostuan.

### 4. Ermita aldea

- 13 adosatu prezio adostuan.
- 27 etxebizitza blokean, salmenta librekoak.
- Ermita tokiz aldatuko da errepidetik urrunduz, eta inguruan zona berde bat edukiko du.

### 5.- Hirigunea

- 31 etxebizitza blokean, salmenta librekoak.
- 10 etxebizitza blokean, prezio adostuan.

# 2006ko Aurrekontuak

## 1- ZERBITZU OROKORRAK

|   |              |
|---|--------------|
| 1.1. Udalkideen ordainsari, protokolo, zesta... | 28.200 €     |
| 1.2. Udaleko langile, aseguru eta mantenimendua | 170.648,69 € |

## 2- GIZARTE SEGURANTZA, BABESA ETA SUSTAPENA

|  |          |
|--|----------|
| 2.1. Langilea, prebentzio iharduerak, etxez etxeko zerbitzua, giza larrialdietarako laguntza | 33.000 € |
| 2.2. Gizarte segurantza  | 37.470 € |

## 3- GIZARTE ONDASUN PUBLIKOEN EKOIZPENA

|                                     |   |
|-------------------------------------|---|
| 3.1. Hezkuntza eskola publikoa      | 5.550 €   |
| 3.2. Udal eraikuntzen mantenimendua | 2.300 €   |
| 3.3. Hirigintza eta arkitektura:    | - Urrutiren erosketa: 60.101,21 € / Arau subsidiarioak: 3.600 €<br>- Iriarte enparantza: 1136.677,84 € / - Hiriguneko urbanizazioa: 60.000 € / - Aisialdi gunea: 36.000 € |
| 3.4. Uraren kudeaketa               | 36000 €   |
| 3.5. Ondakinen kudeaketa            | 9.000 €   |
| 3.6. Babes zibila                   | 23.575 €  |
| 3.7. Kultur sustapena:              | - Euskara, kultur astea, jaiak... : 57.100 € / - Kultur etxearen egokitze lanak: 300.000 €  |

## 4- EKONOMI ONDASUN PUBLIKOEN EKOIZPENA

|                                       |             |
|---------------------------------------|-------------|
| 4.1. Errepide eta bide publikoak      | 18.000 €    |
| 4.2. Nekazal garapena eta abelzaintza | 26.226,78 € |

## 5- ZOR PUBLIKOA

|  |          |
|--|----------|
| 5.1. Maileguen amortizazio eta interesak | 30.907 € |
|--|----------|

**Aipatu gabe gelditu diren atalak** ..... **5.450 €**

**GUZTIRA:** ..... **2.079.806 €**



# AMBY OILASKOAK S.L.

Eutela auzoa, 27 · 20493 Berrobi

☎ 943 683 421

## Lontxo Dorronsoro

# Lehengo garaien testigantza

**Anbuko Lontxo, Lontxo Dorronsoro poliki ibiltzen da, bastoia lagun duela beti. Ezagutu ditu estu eta larri korrika ibili beharreko garaiak, eta biziko bazen lan gogotik egin beharreko urteak ere. Orain gorputzak poliki ibiltzeko eskatzen dio, joan direla garai haiek, lasai bizi behar dela orain, familiaz eta ilobez gozatu beste kezkarik gabe. Iaz Felix Arza elkarrizketatu genuen, herriko zaharrena. Aurten, Lontxo, bigarren zaharrena. Hurrengoan beste norbaiten txanda izango da.**



Lontxo Dorronsorok aurki beteko ditu 87 urte, eta gutxik bezalako burua dauka: ilea urdindurik baina gorde du gaztetakoa, eta oroimenean ere ondo gorderik dauzka ume denboratik gaurdainoko kontuak. Hona bere hitzetan garai haietako lekukotza:

19an jaioa naiz, 1919ko urriaren 28an, Anbu base-rrian. San Simon eta San Juda. Udara joan eta negua heldu da. Hala dio esaerak. Don Rikardo apaizak ohitura zuen denei motea jartzekoa eta niri Zirineo. San Simon Zirineo omen zen eta. Sei anai-arreba ginen, lau mutil eta bi neska. Ni gazteena. Simon Lorenzo bataiatu ninduten, baina denek Lontxo deitu izan didate beti. Aita nik hiru urte nituela hil zen, 45 urterekin. Ez zen oraingo konturik. Umeak eskolara denak, bat ez gaintzekoak. Zaharrena amarekin geratzen zen lanean. Artajorrara edo joaten bazen, lepa-saskia eman, han sartu ni txikia nintzela eta beraiek artajorran. Mendira joan belarretara, metatxorroan zuloa egin sehaska banu bezala, eta han siesta.

Eskolan 13 urterekin geratu nintzen, nazkatu egin nintzelako. Zaharrentxona nintzen eta maistrak esaten zidan, 'Lontxo, hartu giltza, eta piztu estufa' eta ni estufa piztera. Hurrena, 'Lontxo, hartu koadrila hau, eta hartuiezu lezioa'. Horretara joaten al naiz ni eskolara? esan nion ama zenari, 'ni eskolara ez noa ikastera, besteei erakustera baizik, eta ez naiz gehiago joango'. Halaxe geratu nintzen, urteak baino lehen. Hala ere, idazten, irakurtzen eta kuentak egiten ikasi nuen. Purificacion Gimenez zen maistra, Pamplonakoa. Egunero biaje pixkat izaten genuen Anbutik eskolara. Gogoan dut, goiz batean, Usategitik goraxeago anpoloia bat zegoela adarra hautsita. Gu bi


anaiak eta Txurdinagako Martin Joxe han aritu ginen gezeziak jan eta jan. 10:00etan joan eskolara, eta jo, errietat latza eman eta zigorra, bi eskuak zabaldu, liburu pila jarri gainean, eta liburuak eroriz gero makilarekin kolpea.

Orain 70 urte, uztailearen 18 batean gerra nola hasi zen ere gogoan dut. Garia ebakitzen ari ginen soroan, orain granja dagoen horretan. Eta bat-batean 'pum, pum, pum!'. Zer dira horiek? Tiro horiek ez dira eskupetarenak, horiek fusilarenak dira. Gerran hasera. Etxean irratarik ez gendun, baina ordurako zeozer bazetorrela jakinaren gainean ginen. Irratia bakarra zen, Larten, eta herri guztiak entzuten zuen, altu-altu edukitzen zuten eta. Hamabost urte nituen gerra lehertu zenean.

Errezpetik behera sartu ziren soldaduak Berrobira. Jai arratsalde bat zen. Goiko bordatik ikusten genituen bi anai eta arreba. Herri bordako horretan gorriak zeuden, eta haiek ere tiroka hasi ziren, eta bala txistuak gure ondo-ondotik. Korrika batean sartu ginen erreka zuloa eta gero behetik gora etxera. Beste behin, garia jo eta gurdia kargatzen hastekotan ginela, berriro ere tiro hotsak ondoan, eta balak gurdia gurrpilean. 'Martxa, martxa' dena utzi bertan eta ikuilura, babesera. Gaizto joan ziren gorriak ere. Batzuk Kasuelatxetik gorako mina zuloetan egon ziren ezkutatuta eta beste batzuk Herri bordan.

Francoren tropek Tolosa hartu zuten, baina Andoain ezin ziren sartu eta larunbat batean kristoren soldadu pila ekarri zuten Berrobira, artilleria eta guzti. Gure etxetik barrera goiko kaxko horretara joan ziren, kainoiak igotzeko idizaleak hartuta, Andoain erasotzeko asmoarekin.

Anaia bat gerran galdu genuen. Etxera abisatu zuten zauritu zutela, baino "leve". Joan ziren Tolosako Zeru Txiki-



ko batzuk anaia hil zutela eta haren gorputzaren bila eta hara non ikusten duten gure anaia, Juan Dorronsoro, hilda bera ere. Haiek ekarri ziguten abisua. Segituan joan ziren arreba eta Tolosako lehengusua, taxia hartuta, haren bila. Eta ni, 17 urterekin, Caja de Reclutasera. "A la mili". Urrian betetzen nituen 18. Baina joan eta egun berean

bueltatu ninduten etxera. Hiru anaietatik bat libratu egiten zen garai hartan: zaharrena 27 urterekin hil zen gerran eta beste bi anaia ere han ziren. Horregatik, ni ez nintzen frentean ibili, horretan izango nuen zorte pixka bat, baina bai urte pila ederrak soldadu egin. Zazpi guztira. Anaietako bat itzuli zen garaian, 1939an, ja gerra bukatuta, airoso demonio Estellara eraman ninduten. Eta Estellatik Afrikara, Frantziako gerra hasi zelako. Marchica, han egon ginen guardian, desenbarkoaren beldur, eta gero Melillara. Gose latzak pasa genituen Afrikan. Eta etxera abisatzerik ez. Euskarazko karta guztiak txikitu egiten zituzten, gero jakin nuen nik hori. Erderaz idatzi nuen bat, eta bi ixkinetan GOSEA jarri nuen handian. Hura ez zuten zentsuratu. Hala jakin zuten etxean ze gose pasatzen ari ginen eta bidali zidaten diru pixkat.

Hiru urte Melillan egin eta gero etxera bidali ninduten, baina ez zidaten lizentziamendua eman. Permiso indefinido. Sei hilabete egin nituen etxean, obran lanean. Gero Gasteizera eraman ninduten, Errusiako gerra hasi baitzen. Brigada batek esan zidan, 'Lorenzo, tu no quieres ir a la Division Azul?'. 'Yo? yo no tengo ganas de ir en el tren

**“Errezpetik behera sartu ziren Francoren tropak Berrobira. Jai arratsalde bat zen. Goiko bordatik ikusten genituen guk. Herri bordan gorriak zeuden, haiek ere tiroka hasi eta bala txistuak gure ondotik”**

**“Cartilla de Racionamiento izaten zen Francoren garaian. Estankoan eta Juanitonen, bietan jasotzen zen. Azukrea, irina, olio pixkat, txokolatea, boniatoak ere bai, egosten ez ziren garbantzuak...”**

y volver en el papel'. Hilda alegia. Baina ordurako listan jarrita geunden eta zeinek ezetz esan. Gasteizen beste bi urte egin nituen. Han eman zidaten lizentzia.

Lizentziatu ondoren, Beotibarren hasi nintzen lanean. Labean. Eta gero Elduara joan nintzen, Galparsorora. Egun batean joan lan eske, eta hurrengo goizean lanean hasteko abisua jaso zuen ama zenak. Halaxe ziren orduan kontuak. Orduan lanik ez zen falta, gogo behar. Galparsoron aritu nintzen jubilatuta arte.

Francon garaian estu samarra zen giroa. Ez zegoen edozein moduz ibiltzerik edo edozein gauza esaterik ere ez. Beti 'Viva Franco!' esan behar zen. Sekretario eta abarrak, gaiztoenak horiexek ziren. Razionamenduekin eta... Cartilla de Racionamiento izaten baitzen lehen. Berrobin Estankoan eta Juanitonon, bietan zegoen jasotzeko aukera. Azukrea, irina, olio pixkat, txokolatea, boniatokak ere bai, egosten ez ziren garbantzuak, hoixek banatzen zituzten. Garai hartan baserria zuena hobeto bizitzen zen, besteak halamoduz. Torta batzuk ere ematen zituzten, baina Hernialden asto bat ere akabatu omen zen haiek janda. Tolosara etorrita andreak hartu ditutak, sartu ditu zestoan, astoa goseak egon, haiek jan eta bertan hil omen zen. Guk etxean egiten genuen ogia. Errotan. Prezintatu egin zuten errota, geldi eduki behar, baina zer egiten zuten? Egunez geldi eduki eta gauean martxan jarri, eta goizean berriz alde egin, ezkutatu.

Txikitatik ezagutzen nuen Pieda. Hau ere Berrobikoa. Ezkondu ginenean 32 nituen nik, eta 25 berak. Bost bat urte egingo genituen nobio. Orduan ez zegoen etxerik eta. Aurrena Xalbarritik goragoko piso batean jarri ginen bizitzen. Gero Iriarteko hortan 21 urte eta gero Eleiz-Gaineko hau. Orain bizi garen etxea izan zen erosi genuen lehena. Ordura arte alkilerrean bizi izan ginen. Garai hartan etxe bakoitzean igual bizitzen ziren hiru-lau famili, sukalderako deretxoarekin eta gero bakoitza bere gelan.

Gure seme-alabak jaio zirenean artean Franco zegoen, baina normaltzen ari zen gauza. Irabazirik ez, hortxe kokka. Ezkondu nintzenean astean 20 duro ere ez nituen irabazten. Erreal bat gutxiago, erreal hori ere ez ziguten ematen. Eta hilean 30 duro pagatzen genuen alkilerrean Elduan, urik eta ezer gabe. Garai hartan Elduan lan egin zortzi ordu eta Etxeberritxoko harrobian aritzen nintzen beste ordu batzuk, Domingo Kanpainak min hartu zuen arte. Han nintzen ni ere, erori zenean. Orduan geratu nintzen harrobitik eta hasi nintzen obran, Ibarrako Julian Olidenekin. Zortzi ordu fabrikari eta beste lau obran.

Halaxekoak dira gure denborako kontuak. Orain beste-lara dira gauzak. Garaian garaikoa, ez dago besterik.

## Beleak bodatik haserre

Hiru urte Melillan egin eta gero permiso indefinidoarekin etxera bidali nindutenean, sei hilabete aritu nintzen obran lanean, Tomas Uria kontratistarekin. Elduan ari ginela garaje batzuk egiten, ni masari eusten, berastegiari bat palarekin baldeak betetzen, eta goian kontratista eta Sabino Urkizar ofiziala, hiru apaiz pasa ziren gorantza, Berrobikoa, Elduingoa eta Berastegikoa. Garaitu hartan hiru lagun hil ziren Berrobin, eta entierrotik bueltan edo zetozen nonbait, eta halako batean baten-batek goitik 'Patata zomokoak!' eta apaizak aditu 'Koak'. Garai hartan 'Beleak' esaten zitzaizkien apaizei, edo disimuloagoan 'Koak'. Eta beste harek disimulatzeko 'Patata zomokoak' esan. Etorri ziren apaizak haiei burla egin geniola eta bastoia altxata jotzeko desafioan. Guk ez genuela aditu esan genien. Sabinori galdetu eta hark ere ez. Tomas Uriari orduan:

- Zuk ez al dezu eze attu?

- Ez, nik ez tet eze attu.

- Gorrerie al daukezu?- orduan apaizak.

- Jainkoari grazik gorrerik eztauket eta berrikerako gogorik ere ez- esan zien Tomasek eta hantxe alde egin zuten.

Hurrengo egunean Galparsorora joan ziren Elduingo apaiza eta Berrobikoa, biak. Tomas Uria igoarazi zuen nagusiak ofizinara eta bi apaizak han. 'Bueno, Tomas, hemen kejak etorri dira, ze mutil daukazu lanean?' eta hark erantzun 'nik mutil gaztek, langilek eta jatorrak'. Halaxe joan ziren. Tomasek gero guri: 'bueno mutilek, esan egin beharko da nork deitu zien 'Koak' apaizei, bestela guardia zibilak bidaliko omen dituzte'. Eta guk: 'Joan segituan eta esan ekartzeko guardia zibilak'. Egun hartan bertan nirekin ari zen berastegiarrak esan zuen hitz egingo zuela Berastegiko apaizarekin, Don Joserekin. Azaldu zion sekulako jaleoa jarri zutela Berrobikoak eta Elduingoak, eta ea 'berorrek zeoze entzun al zuen'. Don Josek erantzun:

- Motel-motel, ez al dakik ba hiru eguneko bodak ginuzela. Besterik ez zegok hor ezer ere!

Hiru boda: hiru entierro alegia. Garai hartan entierroa egin eta bazkariak ematen zituzten etxeetan eta orduan hiru segidan egokitu zitzaizkien apaizei.

# Mende berrirako eskola berria

**Historia eta bizitzaren gurpila nahiko zitzu bizian aurrera doa. Orain berrogei urte (1967an) "Atariko soroa" izeneko lur sailean eraiki zuten ikasturte bukara honetan (2006an) itxi den Eskola. Upelategi deritzan soroan zabalduko dute aurki berria.**

**"Pausoka 5"**, Eskolako Urtekaritxoan, Gipuzkoako Artxi-  
bo Orokorretik jasotako datu aipagarriak idatzi dituzte Berrobiko ikasleek. Guk laburbilduta ekarri ditugu BerrobiBerri aldizkarira:

- Orain 200 urte, 1807an, maisu ibiltaria aritzen zen irakasten. Bere ordaina, batzuetan, jatekoa izaten zen. Beste batzuetan, Gobernuak dirua ordaintzen zion.
- 1920tik aurrera, bazegoen Berrobin maistra. Euskaraz jakin arren, erdaraz ematen zituen klaseak. "Euskerarekin ez zoaz inora" eta "Euskeraz ezin da zientziarik jaso" sasi-esaldi horiek orduan ere errotuta omen zeuden. Urte horietan, Berrobiko biztanleriaren erdia baino gehiago analfabetoa zen.
- 1967 arte Eskola Udaletxepean zuen herriak. Urte hartan, Berrobin modernotzat eta edertzat joko zuten denek eraikitako Eskola txiki (ordurako haundia) eta txuria. Gero eta ume gehiago zeudenez, "Escuela de Párvulos" bat egitea beharrezkoa zela jo zuen herriak. Horrela, 1968ko uztailaren 26an Udaletxe azpiko lokalak konpondu ziren Diputazioaren diru laguntzari esker.

## Euskararen lehen pausoak

Franco 1975ean hil zen. Ikastolak sortuak eta martxa onean zebiltzan. Herri txikitako eta herri guztietako "Eskola Nazionalak" erdera hutsean irakasten zuten. Franko ondorengo urte bizi eta itxaropentsu haietan zenbait Eskola Nazionaletako irakasle eta gurasoek lau hitzetako esalditxo paregabea kaleratu zuten: **"Euskeraren benetan gure Eskoletan"**. Irakasle euskaldunei esker, Bittor Medina eta lone Imaz-i esker, Berrobin ere burutzen hasi zen



1978tik aurrera irakaskuntza euskeraz, ikasle askoren ama-hizkuntzan. Bidebatez, erdaldunen seme-alabek hementxo gure hizkuntza ikasteko aukera bikaina bereganatu zuten. Aldaketa historikoa eta bahar-beharrezkoa euskaldunen eta erdaldunen barruko mamu negatiboak uxatzeko. Sebas Herrero ere aritu zen bi urtetan, ikasle handienekin. Bi urte beranduago Martina Karrera etorri zen. Ondoren Joxema Unanue eta Maria Rosa Urain. Hortik aurrera, orain arte, eskolako irakasle guztia euskera-duna izan da eta da.

## Eskola modernoa

Ondorengo hogeita hamar urteetan aldaketa piloa eta ederrak egin dira heziketa mailan. Ekaitzaren laino beltzen ondoren, zeru urdina agertzen da orain herriko Eskolan. Zigorak eta beldurrak lurperatuak izan dira eta horien ordezkari konfidantza, elkartasuna eta poztasuna dira nagusi ikasleengan eta gurasoengan. Ume eta norbanako ikaslearen behar eta interesak dira baita ere nagusi eguneroko lanean. Teknologi berrietara bideak jorratzen dira. Ordenagailuetan zenbait ariketaz jabetzea txiki-txikitatik hasten dira. 0 eta 2 urte bitartekoentzat gela badago. Irakasgaiak zabalak dira eta ikaslearen nortasunaren alderdi desberdinak jorratzen dituzte.

Guraso eta irakasleen arteko lana bateratuagoa da orain. Elbarrituentzat eta ezintasun fisikoak dituztenentzat erraztasunak jarri dira. Jangela, hilabeteko igeriketa kanpaina, liburutegia... Hitz batean esanda eta poztekoa dena hauxe da: Berrobik baduela Eskola Modernoa, bai eraikuntza eta baita ere kalitate aldetik.

## Egungo irakasleak

# “Ametsa, ilusioa eta onura asko dakartza”

Gaur egun Berrobin ari diren irakasleen iritzia ere jaso dugu. Motza baina esanguratsua:

"Eskola berria, hain desiratua izan dena, gustotxo eta ilusio handiz hartzen dugu bertan gabiltzanok. Umeak zapa-berriekin bezala sentitzen gara. Onura asko dakartza eskolak guretzako: Fisikoki lehengo lau gelek alderatuta ez dauka zer ikusirik. Eskola garai berrietara egokitu zaigu. Eskaini behar dituen zerbitzu guztiak bertan izango dira (jangela, liburutegia, informatika, psikomotrizitatea...). Baina aurrerapen fisikoaz gain, eskola berriak berearekin ametsa eta ilusioa dakartza eta horrela sentitzen dugu. Eskolako erronka gurea, denona da!!!



## Ekintza Guraso Elkarteak

# “Bide luzea izan da, baina gure nahiak beteak ikusi ditugu”

Gurasoek ere badute eskola berriari buruz euren iritzia. Hona hemen Ekintza Guraso Elkarteak eta Eskolako Organu Gorenak aldizkariari agertutakoa:

Ekintza guraso Elkartearen momentu honetan 40 bat guraso gaude gutxi gora-behera. Zuzendaritza Batzordean, berriz, bi urtetan lau guraso txandakatzen gara, eta lau hauetatik, bi Organu Gorenean partaide dira eta honela izango da txandakatze bakoitzean. Honez gain, beste bi guraso daude hauteskundeetatik ateratakoak; beraz, lau guraso daude gaur egun Eskolako Organu Gorenean, irakasle eta udal ordezkariarekin batera.

Ekintza Guraso Elkartearen eginkizunik garrantzizkoena herriko eskolako ikasleen eskolaz kanpoko ekintzak antolatzea da. Baita ere, gurasoen partaidetza bermatzea eskolan. Eskola Txikietako Erakundearen parte hartzen du. Organu Gorenaren berriz, Guraso Ordezkaritzaren inguruko lana egitea, horretarako biltzen gara urtean zehar hiru aldiz gutxienez erabakiak hartzeko eta, gainera, parte hartzen du guraso, irakasle eta udal ordezkari artean harreman onak bultzatzen.

Bai Ekintza Elkartearentzat eta bai Organu Gorena-



rentzat azken urteetako nahiak beteak ikusten ditugu eskola berria izatearekin. Aitortzen dugu bidea luzea eta zaila egin zaigula zenbait momentutan, akatsen bat edo beste egon dela tartean ere, baina, jakin badakigu ere, akats horietatik ikasi egin dugula, askotan gertatzen den bezalaxe.

Gure itxaropena momentu honetan, gauzak bere bide one-  
tik jarraitzea da eta garai bakoitzean, partaide bakoitzak beharrezkoa den erantzuna ematen jakitea benetan gustatuko litzaiguke.

## Oroimenerako irudiak



Kandi eta Maria Jesus udaletxe azpiko eskolan.



Ezkerrean Joxean, eta eskubian Leire edo Maribi?



Odriozola anai-arrebak. Bat falta zen artean.



Hautentzat ere joan dira urteak!



Sebas, Martina, Jone, Bittor eta Joxema. Historikoak.



Maria Rosa eta Jonekin Santaeskean.



Bertsotarako prest.



Iñauteriak frontoi zaharrean.



Elur panpina bizirik eduki genuen bi egunetan.



Olentzero txikia gurdi berezian.

## Eskolako argazkia (1963)

# Koadrila galanta!

**Argazkia iluna, memoria ahula, komeria franko ibili dugu irudiko ume sailari izenak jartzeko. Baina azkenean, bati eta besteari galdetuz, puzzlea ia-ia osatu dugu. Hori uste dugu behintzat. Dena den, zuzenketaren bat egin nahi baduzue, edo hutsuneren bat bete, badakizue non gauden. Eta mila esker detektibe lanetan lagundu diguzuenoi.**

**Ezker eskuin, behean:** Javier Murua, Joxe Kruz Agirretxe, Pello Aiestaran, Joxe Mari Agirretxe eta aurrean Ramon Odriozola, Martin Esnaola, Jose Migel Murua, Dionisio Caballero, Luis Lopez, Luis Zumeta, Jose Horri- llo?, Florentino Nosellas, Jose Luis Irisarri.


**Bigarren ilaran:** Trini Fuentetaja, Xole Agirretxe, Mertxe Agirretxe, Petri ...?, Koro Berakoetxea, Paki Masa, Kontxi Odriozola, Mari Karmen Urrutia, Nieves ...?, Mari Kar- men Irisarri, Maite Erauskin, Loli Dorronsoro, Mikel Dorronsoro, Ana Belen Odriozola.

**Hirugarrenean:** Belen Muñoa, Maria Jesús Iturriza, Kan- di Iturriza, Ana Mari...?, Inma Dorronsoro, Maribel Gur- rutzaga, Lurdes Arzallus, Hilarioren iloba?, Ana Mari Berakoetxea.

**Laugarrenean:** Mertxe Muñoa, Gloria Muñoa, Begoña Aiestaran, Arantxa Aierza, Rosario Belaunzaran, Juanjo Odriozola, Eugenia Agirretxe, Maria Jesús Urrutia, Ma- ria Caballero, Joxe Mari Muñoa, Fernando...?, Hilario Gi- belalde.

**Bosgarrenean:** Jose Inazio Arzallus?, Amadeo Gibelalde, Inazio Ayerbe, Joxe Mari Belaunzaran, Juan Ramon Erauskin, Xanti Belaunzaran, Asensio Aierza, Joxe Ra- mon Arzallus, Juan Antonio Horrillo?, Juan Joxe Berako- etxea, Angel Ocampos?, Antonio Caballero, Jose Luis Fuentetaja.







## Luis Erauskin (1914-1986) Soinuarekin festa eta umorea hauspotzen

**Aita zaldibiarra zuen, horregatik esaten zioten Xaldibi, baina bera Berrobikoa zen izatez. Kanposantu ondoko Zubiaurre etxean jaioa. Garai haieran, taberna zuten etxearen behelaldean.**

Luis, gazte-gaztetatik hasi zen soinu jotzen, eta jai egun askotan etxeko tabernaren aurrean dantza saioak antolatzen zituen. Etxetik kanpo ere, hamaika herri eta plaza-tara joan zen, festa jartzera. Horretaz aparte, Urangan egiten zuen lan.

Goiko argazkian, Elduko Naxilenen soinu jotzen ageri da. Behekoan berriz, (Tolosan edo Iruñan aterea), Arroztegiko Manuel Izagirre zenarekin, umoretsu eta festarako prest.





# Akolegi

## Iragan denboreen oihartzunak


**Pixkanaka, herriko paisaia aldatzen ari zaigu, hirietako urbanizazio polit baten itxura hartzen doa. Baserriak berriz, banan-banan, desagertzen ari dira. Eta hauekin batera, gure historia ttiki eta xumearen zati handi bat ere bai.**

Akolegi da azkenekotako bat. Aspalditik hutsik, 1996an udalak lurreratzeko agindua eman zuen, oso egoera txarrean zegoelako.

Baina, orrialde hauetan, desagertzeak dakarren ahazturaren aurka ahalegintzen garenez, 30 urte atzera egingo dugu, orduko instant bat gogora ekartzeko.

Igande arratsaldea da. Munttea aldeko paretaren kontra dagoen albortxiku-ondoak ale ugari dauka eta etxe

atearen alboak lorez beteta daude. Ezkaratzean sartu eta eskubitara, sukaldean, Eduvigisen algara alaia entzuten da. Lagunekin kontu kontari emango du arratsaldea, esnezaleak etorri arte. Bere koinatua, Joxe Mari siestara joan berria da. Biharamunean, asteleheneroko Tolosako ganadu ferira joateko asmoa du. Eta honen semea berriz, Juanito, herriko gizaseme dotorenetako bat, oraintxe aixin abiatu da Donostiara, Errealaren partidua ikustera.



# Urkola tabernaren agurra

**Iazko Sanagustinak bukatu eta gero, abuztuaren 30ean itxi zituen ateak Urkola tabernak. 43 urtez, Joxe Urkola eta Maria Dolores Irigoienek etxea eta lantokia izan zen. Orain, erretiroa hartu eta Iruran bizi dira.**

## Gogoan al duzue noiz hasi zineten?

Joxe: 1962ko urriaren 1ean. Nire bi anaiek eta hirurok hartu genuen taberna. Maria Tolosak traspasatu zigun. Nik 28 urte nituen eta emazteak 22. Urtebete berandua go, anaiekin hitz egin eta gu geratzea erabaki genuen. Artean ezkontzeko geunden.

## Tabernan, barra, jantokia eta denda kokor bat ere bazenu-ten, jai eta aste ateak zabalik.

Dolores: Gainera Joxe harategian ere aritzen zen. Nik berri, tabernaz gain, etxeko pasadizoa eta bi alaben arduraren. Zilarrezko Ezteiak egindakoa hasi ginen oporrak hartzen. Ordura arte, behin bakarrik egin genituen, Benidormen. Ezkondu ginenean ere ez genuen itxi. Hala ere, beharra izan dugunean, familia eta adixkideak beti laguntzeko prest izan ditugu. Eta Miren eta Idoia, gure bi alabek ere, tabernako berri ondo asko ikasiak dira, bertan aritzen baiziren asteburuetan eta festetan.

## Hainbeste urteetan, hamaika aldaketa ikusiko zenituzten?

Joxe: Bai, bizimodua asko kanbiatu da ordutik hona. Adibidez, hasierako urte haietan, dendan, bezero batzuei jeneroa aurreratu egiten genien, astean behin ordaintzeko

ohitura zuten eta. Askok jakingo ez duten beste gauzeta-ko bat, zera da: tabernatik eskaileratan behera jeitsita, Joxe Mari Beltza bizarginaren "ofizina" zegoela. Asteburuetan joaten zen. Oraindik gordeta daukagu hark erabiltzen zuen aulki txiki bat. Beste aldaketa nabarmena, Bide-Ona elkartearen sorrera izan zen. Lana ugaritu egin zitzaigun, bazkideek, ehiza eta bestelako jakiak ekartzen baitzizkiguten guk prestatzeko.

## Sanagustinetan, lotarako denborarik izaten al zenuten?

Dolores: Ez askorik. Gau eta egun lanean aritzen ginen. Gogoan dut goizeko lauetan, nola eskatzen zizkiguten baratzuri-zopa, txipiroiak, mingaina saltsan, etab. 100 barra ogi gastatutako egunak izan genituen. Ia beste hainbeste oilasko erosi genituen beste urte batean. Joxe ia lorik egin gabe joaten zen askotan harategira. Urteekin ordea, festetako giroa aldatzen joan da. Lehen ilusio handiagorekin bizitzen zituen jendeak, orain nahiago du oporetara joan.

## Elizak ere izan du eragina zuen negozioan

Joxe: Halaxe da. Lehen mezetara jende asko joaten zen eta gero tabernan biltzen ziren hamaiketako egiteko edo

afaria larunbatetan. Aste Santuko elizkizunen ostean ere, herritar franko joaten zen otorduxoa egitera. Orain ez dago orduko konturik. Hiletetako meza diruak ere gurean biltzen ziren. Halakotan, gailetak eta ardoa, edo kafesnea emakumeentzat, ateratzen genituen hildakoaren familia-ren kontura.

### Dolores, denek esaten dute oso sukaldari ona zarela, non ikasi zenuen?

Dolores: 14 urte nituenean, aitak taberna jarri zuen Oiarzuzungo Ergoien auzoan. Gero, 18 urterekin, Tolosako izeba batengana etorri nintzen, Zumeta tabernara hain zuzen, eta han 4 urte egin nituen. Hortik aurrera nire kasa aritu naiz, pazientzia eta gogo askorekin.

### Ehiza omen da zure espezialitatea

Dolores: Hala diote. Klase guztietakoa prestatu izan dut: usoak, basurdeak, oilagorrak, galeperrak etab. Tabernatik kanporako ere bai, elkarteengandik, eta baita partikularrengandik ere, eske handia izan dut. Bitxikeri bezela esango det, behin astoa ere prestatu nuela. Gure biloben esanetan berriz, kroketak eta babarrunak dira hobeto ateratzen zaizkidanak. Behin, HITZAN hala irakurri zuela eta, gizon bat kroketa eske etorri zen.

### 43 urte egin dituzue Berrobin. balantzea, positiboa al da?

Joxe: Bai, kontentu gaude eman dugun bizimoduarekin, ez genuke aldatuko. Lana gogor egin behar izan dugu, baina gustokoa genuen, eta gauza asko eman digu ordainetan. Gainera, herritarrek beti azaldu digute bere maitasuna eta esker ona.

### Oroitzapen txarraren bat ere izango duzue?

Dolores: Txarra esatekorik ez. Bezeroak normalean jator portatu dira. Tartean, bestelakoren bat ere izan da noski, baina oso gutxi. Gogoratzen naiz, behin Elduko fabrikara etorritako kamioizale batek afaldu eta 3 Gin-Tonic edan eta gero, ordaindu gabe alde egin zuela. Afariak ez zidan halako penik eman, baina bai Gin-Tonic-ek.

### Jubilatutako damurik ba al duzue?

Joxe: Oraingo ez, oso gustora bizi gara. Paseatu, familiarekin egon, bidaitxo bat edo beste ere egin dugu. Aspertzeko denborarik ez daukagu. Berrobin geratu izan bagina, okerragoa izango zen, taberna itxita ikusteak pena handia ematen digu eta. Horregatik, aldaketa mesedetarako izan dugu.

Dolores: Hasieran pena eman zidan. Asmatuko ote dut

otordua 2 lagunentzako bakarrik prestatzen, esaten nion neure buruari. Baina orain pozik nago, bizitza disfrutatzen ari naiz.

**Mila esker bioi eta ondo bizi.**



## Estankoa

100 urte baino gehiago omen dira taberna iriki zela, eta tarte horretan, noizbait, estankoa ere izan zen aidanez. Horregatik, oraindik, askok izen horrekin ezagutzen dute. Baina beste funtzio gehiago ere bete ditu lokal honek.

Joxeren hitzetan, aitorleku, biltoki eta askotan banku ere izan da. Herriko kontu guztiak biltzen ziren bertan. Eta kanpotarrei ere makina bat aldiz lagundu die, herriko berri emanez. "Información y Turismo Urkola" beharko omen zukeen izena.

## Doloresen uxoen errezeta

1. Oliotan doratu tipula, azenarioa, porrua, pipar berdea eta baratxuria.
2. Uxoak ere doratu eta gero dena bateratu.
3. Ardo txuria gehitu eta egosten eduki, denbora dexentean.
4. Salda gehitu uxok estali arte eta irekiten eduki.
5. Uxo bakoitzak bere denbora behar du. Eginda dauden edo ez jakiteko, petxualdea ukitu eta biguntzen diren heinean, eltzetik ateratzen joan behar da.

**Berrobik berri ugari eman du aurten ere kirolari dagokionez: arraunean, pilotan, eskian, bizikle-**

**tan, frontenisen, korrika nahiz futbolean izan diren emaitza aipagarrienak hauxek dira.**



## Frontenis

Urteroko ohiturari jarraituz, aurten ere burutu da Berrobiko Jon Ander Izagirre frontenis txapelketa, XIV. ekitaldia. Parte hartzaile kopurua beste urteen antzerakoa izan da, handia. Mutiletan 56 bikote, banaka 40 lagun eta nesketan 5 bikote. Emaitzei dagokionez mutiletan irabazleak

Jon Ander Goikoetxea eta Manex Arrieta anoetarrak izan ziren. Banaka, berriz, 12. aldiz jarraian Niko Artola herri-tarra. Nesketan berriz Nagore Lizardi elduindarra eta Amaia Agirre billabonarra.

Aipatu behar berrobiko txapelketaz gain, Niko Artolak eta Iker Lizardik beste bi txapelketa irabazi dituztela. Bata abenduan jokatu zen Gipuzkoako txapelketa, bestea berriz Oliteko txapelketa.

## Futbola

Berrobiko eskolako gaztetxoak urtero Tolosan egiten den San Juan Saria futbol txapelketan parte hartu dute, Imanol Arratibel entrenatzailearekin. Emaitza onak lortu dituzte, banjaminak 4. eta alebinak ere oso ondo aritu dira.



## Aizkora apustua

Aspaldi ikusi gabeko jendetza izan zen Urriaren 15ean Mikel Belauntzaran Berrobotarraren eta Iban Ugartemendia Belauntzarraren arteko aizkora apustua ikusteko, 400 pertsona inguru bildu ziren herriko frontoian. Sei kanaerdiko moztu behar izan zituzten eta garaipena, azkenik, Belauntzakoarentzat izan zen. Bien saioa oso txukuna izan zen dena dela eta emandako ikuskizuna ederra. Jarrai dezala afizioak!





## Pilota

Jakin badakigu Iñigo Altuna Frontis enpresan pilotari profesionala dela. Iazko udan gainera beste bi urterako berri-ritu zuen bere kontratua.

Iaz bezala Iñigok oso maila ona erakutsi du denboraldian zear. Adibidez, otsailean Bizkaiko irekian bigarren sailkatu zen Antxiaren aurka finala jokatu ostean. Hala ere tamalez, maiatzean pilota partida bat jokatzeko ari zela belaunak atzera egin eta bihurtua izan zuen. Hiru hilabete badira lesio hartatik eta ongi doan arren, luze egiten ari zaio. Irrikatzen dago berriro pilotan hasteko. Animo eta ea lehenbailehen frontoian ikusten dugun.



## Korrika

Berrobin korrika egiteko zaletasuna dagoela jakina da, horrela aurten ere izan ditugu partehartzaileak Behobi-Donostia proba ezagunean; Jose Luis Zabala, Kapi Artola, Ramon Olasagasti, Niko Artola, Ibai Madina, Fermín Zubeldia, Juanjo Odriozola, Aitor Aierza eta Sebas Usandizaga. Hala ere aipatu ez direla Behobian bakarrik ateratzen, izan ere hau prestatu ahal izateko aurretik hainbat probetan ere parte hartzen baitute, Ordizian, Donostian, Tolosan, Zumaian...

Maratoian aldiz parte hartzaile bakarra izan da aurten, Anartz Egimendia. Bartzelonako maratoia egin du maiatzean, 3:30:00 denborarekin. Gainera aurtengorako nikiak atera dira, lasterka beraiekin egin eta herria beste tokietan ezagutzera eramateko.

## laburrak

### Txirrindua

Ekainaren 17an ospatu zen Sabiñanigon (Huesca) hain ezaguna den "Quebrantahuesos" txirrindu proba. Proba hau 205 kilometroko proba bat da tartean Somport, Marie Blanche, Portalet eta Hoz de Jaca bezalako portu gogorrak igarotzen dituelarik. Herrian badira aurreko urteetan proba honetan parte hartutakoak eta aurtengoan Jose Luis Zabala izan dugu parte hartzaile. Prestakuntza egokia egin eta gero ongi amaitu zuen proba herritarrek.

### Gimnastika erritmikoa

Herrian orain artean sorna haundirik izan ez duen kirol honek baditu dagoeneko jarraitzaileak. Arantzazu Rodas eta Garazi Goenaga gazteak aritu dira gimnastikan urtean zehar Ibarra taldean murgilduta. Eman dute gainera jende aurreko erakustaldirik. Denbora badute ta gogoia izan ezker, etorkizuna beraiena da.

### Fondoko eskia

Otsailaren 5ean hiru herritarrek fondoko eskian egiten den proba gogorrenetariko batean parte hartu zuten. Jose Luis Zabala, Iñigo Zabala eta Gerardo Armendarizek "Marxa Beret" deituriko proban parte hartu zuten. Proba hau hiru distantzia desberdinetan banatzen da: 10, 20 edo 30 km-ko laisterketetan hain zuzen ere. Azken honetan parte hartu zuten eta gogorra egin baitzaien ere proba amaitzea lortu zuten hirurek.

### Arrauna

Aurtengoan ere izan dugu herritarren parte hartzerik San Juanetako batelen proban. Iñaki Esnaola, Mikel Belauntzarán eta Elduaingo Ibon Karrera aritu dira aurten leñan. Iñaki "Gaztelu-Ibarra B" batelean aritu da eta bigarren postu aipagarrian amaitu dute proba. Mikel berriz "Arco-Iris" batelean izan da eta bostgarren postuan amaitu dute. Ibonek, azkenik "K2" batelean ezin izan zuen azken eguneko probarako sailkatu. Zorionak guztiei eta noizko "Berrobi-Elduain" batela?

## Ainara Ugartemendia

# Suediako Göteborg hirian

**2005eko abuztu bukaeratik 2006ko ekaina bukaera arte Suediako Göteborg unibertsitatean Enpresaritzako lizentziatura bukatu du Ainara Ugartemendia Hualde berrobitarrak. Orain geurekin dago; berak kontatu digu hango berri.**



Stockholm-en Lizartzako Jaione eta Katalunia, Madril, Granada eta Andorrako lagunekin.

“ Nork esan behar zuen etxetik milaka kilometrotara hainbeste hilabete igaroko nituenik? Egia esan, txikia nintzenetik ingelesa oso gogoko izan dut, eta kanpora joateko aukera hau ezinhobea izan da ingelesa praktikatuz ahal izateko. Dena den, unibertsitate ikasketak Suedian bukatzea bultzatu didan arrazoi nagusia ingelesa hobetzea izan arren, esperientzi bikaina izan da zentzu askotan. Kultura desberdin batean bizitzea oso aberasgarria da, asko ikasten da, eta denboraren poderioz bertako ohiturak zureganatzen dituzu eta bertako beste kide bat sentitzen zara. Aukera hau duen edozeini gomendatzen diot itsu-itsu. Hasieran Euskal Herriko lagun eta familiaren falta sentitzen da, baina lagunak egin ahala, hutsune hau berehala betetzen da. Lagunak egiteko aukera asko daude; hala nola, unibertsitatean, erresidentzian, festetan, bidaietan, etab. Gertuko lagunekin lortzen den konfiantza oso handia da, bizi guztian ezagutu izan banitu bezela. Egia esan, zorte handia izan dut topatu ditudan lagunekin, oso gustora ibili gara elkarrekin.

Unibertsitate bakoitzak bere metodo jakin bat dauka. Euskal Herriko Unibertsitateko E.A.Z.L.-k (Enpresaritzako eta Administrazio Zientzietan Lizentziatura) ikasleei ingeleseko bederatzi plaza bakarrik eskaini zizkieten. Bada ez bada, apuntatu nintzen zerrendan, plaza lortzea oso zaila ikusten nuen arren. A zer nolako poza nire izena zerrendan hirugarrena ikustean! Badirudi lehenengo baldintza ingeleseko titulua (First Titulua) edukitzea zela eta ondoren batazbesteko notaren arabera sailkatu gintuzten. Ilusio handia egin zidan zerrendan lehenengotarikoa izateak. Plaza honi dagokionez, "Erasmus beka" lortzen da, iturria Euskal Herriko Unibertsitatea izanik. Dena den, beka hau ez da nahikoa urte osoko gastu guztiak estaltzeko. Hori dela eta, beste iturrietatik beka gehiago lortu ditut; horien artean, Kutxa, Diputazioa eta Göteborg Unibertsitatea.

Göteborg hiriak 500.000 biztanle izan arren hiri lasaia da. Suediako hegoaldean dago, Dinamarkatik gertu. Garraio publikoa asko bultzatu dute eta horrek trafikoa asko



Izotz hotelean, Kirunan. Kanpoan hotzago, barruan baino.

gutxitzen du. Tranbia eta bizikleta dira gehien erabiltzen diren garraioak. Hiri bertan parke handi eta berde-berdeak daude, eta baita lakuak ere. Ingurugiroa zaintzen dute suediarrek.

Irakasteko metodoa nahiko desberdina da Euskal Herrikoarekin konparatuz. Klase ordu gutxiago daude, baina liburu asko irakurri behar izan ditugu. Gu orain arte klasetan apunteak hartzen ohituta, gogorra egin zaigu hainbeste liburu irakurtzea. Orain konturatzen naiz arazoei gure kabuz aurre egiten erakutsi digutela, lan munduari begira metodo egokia dirudi.

Kafea hartzeko ohitura harrigarria da Suedian. Unibertsitatean, kafetegietan, etxean, etab. Kafetegi ugari dago, terraza eta guzti, arratsalde pasa askotan joan izan gara kuadrilan. Gainera, ni kafezale amorratua naiz eta honek kultura berri honetara hurbiltzen nau.

Maiatza aldera eguraldi onarekin batera belaze berde guztiak jendez betetzen dira, gazteak, familiak, etab. Bertan jendeak eguzkia hartzen du, baloiarekin jolastu... hondartzan bezala. Eta oso tipikoa da barbakoa egitea, eguerdian edo iluntzean, izan ere, eguna oso luzea izanik beranduarte jende asko egoten da. Harrigarria da ze jende piloak elkartzen den. Gu ere han izaten ginen, suediarren antzera, kuadrilan arratsalde pasa, barbakoa eta guzti.

Ostiralero, hau bai dela benetan harrigarria, taberna gehienek afaria dohain "afterwork" eskaintzen dute. Aukerarik, goiz samar izaten da, arratsaldeko seiak aldera, Suediarrek oso goiz afaltzen baitute. Dena den, ohitura hau asko gustatu zaigu kuadrilan afaltzera joateko.

Janari eta arropetan ez dut alde handirik nabaritu. Baina alkohola oso garestia da tabernetan. Hau dela eta, gazteak diskotekara joan aurretik sukaldean biltzen dira bakoitza bere edariarekin. Gainera, alkohola denda berezi batek soilik saldu dezake "Systembolaget" izenekoa). Supermerkatuetan gradu batetik aurrera debekatuta dute saltzea.

Bidai batzuk ere egin ditut; ez da bakarrik ikasketa teorikoa izan. Inguruko herrialdeak bisitatu ditut, Kopenhage (Danimarka), Estokolmo (Suedia), Oslo (Noruega), Helsinki (Finlandia), Kiruna (Suedia-zirkulo polarra), Tallin (Estonia) eta Riga (Letonia). Aipatzekoa da Kirunako izotz hotel, ikusgarria da benetan. Udaberrian berriz, lehen aipatu dudak bezala, parke, laku edota uhartetara joaten ginen kuadrilean.

Jarduera edo ekintza dexente egin ditut, batipat neugan; horien artean, elurretako motoetan ibili, trineoan txakurrekin, izoztutako lakuan arrantza, zaldian ibili, etab. Denborarik galdu gabe.

# Iturriza janaridenda

Jose M<sup>a</sup> Goikoetxea, 24 · Berrobi  
☎ 943 683 169



☎ 943 672 388 · Fax: 943 675 665  
Poligono Industrial Beotibar, s/n  
20491 Belauntza

# Ekintza Guraso Elkatea

*Tolosaldea*

## Tolosaldeko autobus linea

- Ibilaldiak
- Estaiak
- Agurafariak
- Ikastetxeak
- Ikastetxeak
- Lineaz kanpoko zerbitzua

Donostia etorbidea, 9 · ☎ / Fax: 943 650 621 · 20400 Tolosa

# Olain okindegia



Jose M<sup>a</sup> Goikoetxea, 31 · 20493 Berrobi  
☎ 630 579 549

ZARREN ELKARTEA  CLVB DE JVBILADOS

# SOLASTOKI

Eleitz-Gain etxea · 20493 Berrobi

Jatetxea · Restaurante

# Venta

Menús diarios · Menús especiales

Comidas y cenas de familiares y cuadrillas · Bautizos y comuniones

Carretera de Leitza, 21 · 20491 Belauntza · ☎ 943 672 828



## Kultur Astea

XVI. Kultur Astea ekitaldiz beterik etorri zitzaigun, haurrentzako, gazteentzako, emakumeentzako, helduentzako... denontzako alegia. Buruhandiak, alterofilia erakustaldia. Errezeta goxoak egiteko aukera ere izan zen, Felix Belaunzararekin eta Tolosako Ikatza tabernako Kontxi Dorrnonsororekin. Idoia Sanchez ipuin kontalariak bere istorioekin fantasiatzko munduan barnerratu gintuen, Ainhoa

Arregi Belauntzarrak berriz, Peruko Cusco herriak bizi duen errealitatea erakutsi zigun argazki erakusketarekin. Umoreak ere izan du tartea kultur astean, Iker Galarza eta Joseba Usabiagak nahiko barre eginarazi baitzuten "Erreleboa" komediarekin. Literaturak ere badu txokoa, eta herriko gazteek eginiko lanak saritu ziren. Eskolako haurrek ere antzerki emanaldi kuriosoa eskaini zuten. Eriz magoak bere trukoekin aho zabalik utzi gintuen, Mus txapelketan herriko abilenek irabazi zuten eta txakolin dastaketan ederki freskatu edo berotu genituen barrenak.

## San Juan sua, gau magikoa

Urtero bezala, herriko gaztetxoak jo ta ke lanean ibili ziren San Juan sua prestatzen, taldeka prestatu zuten gainera, Urruti aurrean eta Altsonen, su ederrena eta indartsuena euren izateko. Larte eta Seskea baserriek ere egin zuten euren sua. Gau magikoa da San Juan bezperako gaua. Tradizioz, deabruak eta gaiztakeria uxatzeko bitartekoa da sua. Eta udako solstizioarekin batera, argia, udararen gorespina eta garbi izatearen erritoak berpizten dira. Euriak ez zuen ez eragotzi San Juan suak Berrobiko gaua argitzea.





## Olentzero eta Santa Ageda

Ohitura zaharrak mantenduz, bai abenduaren 24ean eta baita otsailaren 4ean, izan zen herria kantuz ederki girotu zuenik. Olentzero egunean, Berrobiko Eskolako ikasle, irakasle eta gurasoak ibili ziren etxez etxe eta Santa Ageda bezperan berriz,

Ekintza Guraso Elkartekoak berriro animatu ziren seme-alabekin batera. Ez dakigu garai batean bezala saskian arrautza eta txistorrik bildu zuten, baina norberak prestatutakoarekin behintzat, egunari bukaera goxoa eman zioten iluntzean afari koxkor batekin.

## Ramon Olasagastik "Mendiminez" liburua idatziko du

Ramon Olasagastik I. Tene Mujika beka irabazi du "Mendiminez" proiektuarekin. Mendian hil diren hainbat euskal mendizalari buruz idatziko du, nor ziren, nolakoak ziren eta zer egin zuten erakustea du helburu liburuak. Felix Iñurrategi, Jose Luis Zuloaga, Zulu, Manu Badiola, Miriam Garcia, Xabier Ormazabal, Antonio Miranda, Mikel Ruiz de Apodaka, Xabier Ansa eta Antxon Alonso oroitu ko ditu besteak beste liburuan.

Mendiminez bizi zirelako eta mendiak ere euren artera mina ekarri duelako, "Mendiminez" izenburuak liburuaren mamia laburbiltzen digu. 2007ko udaberrian liburua argitaratua izatea espero du Ramonek.

### Emakume Langilearen Eguna

Aurtengo Martxoaren 8an ere, emakume koadrila ederra bildu zen Iriarten afaltzeko. Jantoki osoa behar izan zuten beraientzat bakarrik, 61 baitziren, inoiz baino gehiago. Gazte eta heldu elkartu ziren, trikitixa eta guzti, saltsa ederrean.

### Arabako Errioxara egun-pasa

Bordelerako bidaiaz gain, aurten, Bastidara antolatu zuen irteera Udalak, Martxoaren 18an, larunbatez. Giro aparta izan omen zen bertan ibili zirenen esanetan. 68 lagun elkartu ziren, hain zuzen, Zaldibar upeltegira bisitan eta bazkari legea egiteko aukera ederra izan zuten. Galdetu egin behar bertako nagusiari zenbat txarrokada atera behar izan zituen Errioxako ardo gozotik... Batzu- batzuk begiak dir-dir, hankak dar-dar jartzeraino bai seguraski. Bazkalostean, Aro herrira hurbildu eta hango haize freskoarekin argitu omen ziren pixkat, arratsalde- iluntzean etxerako bueltan jartzerako.

### Uxola sariak

Tolosan gaztetxoei zuzenduta antolatzen den literatur lehiaketa dugu hau. Aurten, 20. edizioa izan den honetan, Maddi Dorronsoro berrobitarrak 3. saria jaso du LH 5 eta 6. mailakoen artean, olerki sailean, "Liburua ireki" lanarekin. Zorionak zuri ere Maddi, eta segi horrela!

### Ikastaroak

Helduentzako eskulan eta sendabelarrei buruzko ikastaroak burutu dira aurtengo ikasturtean, Kutzak eta Udalak antolatuta. Sendabelarrei buruz, 5 astetan zehar aritu ziren parte hartzaileak, goizetan, 2 orduz. Desodoranteak, ukenduak, likoreak eta aire freskagarriak egin zituzten besteak beste, Zorion Insausti irakaslearekin.

### San Isidro

Maiatzaren 15ean, astelehenez, izan zen aurten baserriarren eguna. Ohiturari jarraituz, egina zuten afaritan elkartzeko gonbitea. Baina ez dakigu, gure herrian gero eta baserriar gutxiago dagoelako edo hauek ere zaintzeari eman diotelako, kontua da gutxi bildu zirela aurtengoan. Ea datorrenerako lanak pixkatean utzi eta gehiago animatzen diren.

# elduain

taberna-jatetxea

☎ 943 683 327 · Elduain hirigunea, 1 · Elduain

## OSTATUA



Urrope plaza · Leaburu  
☎ 943 671 548



Ibai-Ondo etxea, 2 / esk. · 20493 Berrobi  
☎ 943 683 112 / 619 405 260 · Faxe: 943 683 112

## IV. Literatur Lehiaketa

Udal Liburutegiak antolatuta, aurten 4. a izan dugu, herriko edo herrian ikasten duten haur eta gaztetxoei zuzenduta, hizlauan. 22 parte hartzaile izan ziren, 4 kategoriatan banatuak:

- **1go kategorian (6-8 urte)** 4 lan izan ziren aurkeztuak. Hoiien artean, Imanol Arratibelek irabazi zuen "Ostruka anaiak" ipuinarekin.
- **2.kategorian (9-11 urte)** 13 lan. Hoietatik, Pere Arratibelek jaso zuen irabazle saria "Denetatik ikasi nahi zuen mutikoa" lanarekin. Arantzazu Rodasek berriz, aurten ere aipamena izan zuen, "Ea zer gertatzen

den amonaren atsekabearekin" idazlanagatik.

- **3.kategorian (12-14 urte)** 3 lan. Itziar Artola suertatu zen garaile "Marmota eta bere laguna" lanarekin.
- **4.kategorian (14 urtetik aurrera)** 2 lan. Hauen artean irabazle Estizen Agirresarobe izan genuen "Dena dutenen amorrua" idazlanarekin. Zorionak denei!

Epaimahaikideen esanetan, aurten gora egin du mailak parte hartzearekin batera eta aipagarria izan da sorturiko gaien aberastasuna. Beti bezela, parte hartzaile guztiek jaso zuten saritxo bana. Esan behar ere, eskolako irakasleen bultzada eskertzekoa dela lan honetan.

### Hotza, beroa, euri zaparradak...

Aspaldian ezagutu den tenperaturarik hotzenak egin zituen abenduan. Astebetean, Ospelaldean izotzik ere ez zen kendu, tenperaturarik baxuena - 7 ° C izan zen. Ekainean berriz, tenperaturak oso altuak izan ditugu 15 bat egun jarraian eta euri tantarik erortzen ez zenez, bazterrak lehortzen hasiak. San Juanak aurretik baina, Gipuzkoan bota zuen euri jasarik handiena erori zen Berrobi eta Belauntza artean. Frontoia lokatzez bete zen eta kaleak berriz erreka ziruditen.



**Bide - Ona**  
Gastronomi Elkarte

**Jose M<sup>a</sup> Goikoetxea / Casa Iriarte, 10 · Berrobi**

# Jai biziak bizi



*Alaitasuna, aldarte onak, ustekabeak, jostaketa. Jaiak gozatuz bizitzea. Horra zer opa dizugun guk ere. Horra, **kutxak** opa dizuna.*



# berrobiberri'06

## 2006

7. zenbakia



1974-75 ikasturtea